BIZITEGI ERAIKINA — EASO 47

D MAILA



Egilea eta data: Carlos Ibero; 1906.

Deskribapena

Kantoiko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituena, gehi bi jasodura (1935ekoak), bata fatxada planoan eta bestea atzeraemana. Harlanduzko fatxada, pilastrak eta kuxindurak dituena. Kantoiko alakan eta Easo kaleko alboko muturrean hormigoizko begiratokiak ditu (6. oinean galerian erematuta daude). Begiratokiak geroagokoak dira (1935ekoak), baina harlanduzko fatxadaren apaingarriei jarraitzen diete. Behe oineko baoak arku hautsiekin erematatuta daude. Proiektu komuna Larramendi 25ekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodura atzeraemana (6. goi oina), begiratokia barne, betiere oin horri dagokion zatian.
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
* Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak.